

MEMORIA

20
18

JAIALDIAK
LITERAKTUM



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN




donostia
kultura



LITERAKTUM



Reyes Monforte eta Alicia San Juan



inazea izan zen gaia, eta 10.867 lagunaren arreta erakarri zuen Literaktumen 2018ko ediziora.

33 jarduerak osatu zuten programazioa (tartean, haurrentzako lau), eta 54 gonbidatu izan ziren. Jaialdia azaroaren 13tik 24ra egin zen, eta zenbait mugarri izan zituen. Esate baterako, **Nacho Carretero** eta **David Truebaren**, **Ramon Saizarbitoria** eta **Iban Zalduaren** eta **Manuel Vilas** eta **Juan José Millásen** hitzaldietan bete egin zen aretoa. Orobat, **Martuteneko kartzelan**en estreinaldiak bete egin zuen Loiolako areto nagusia, bai eta **Sonetos del amor oscuro**ok Lugaritzekoa ere. Bestetik, **Afoniak** soinu-sorkuntzak eta **Harkaitz Canoren Fakirra-
ren ahotsa** eleberraren aurkezpenak interes handia piztu zuten. Aipamen berezia egin behar zaie **Pio Barojari bisitan** literatur ibilaldiari eta **Anna Karenina** liburuaren inguruko afari-solasaldiari, non 80 lagun bildu baitziren, aretoa osorik bete arte, eta artean beste asko itxaron-txandand zirelarik.

Beste elkarte batzuekin batera programaturiko jarduerak ere ez zuten inor hotz utzi: EHUren **Pentsatu!** Jardunaldiak, **Danele Sarriugarte** eta **Fernando Broncanoren** arteko topaketa **Kaxilda** liburu-dendan kulturaz hitz egiteko (denda mukuru bete zen) edo filosofia eta oinazeari buruzko mikro-
eztabaidak **Tabakalerako Kutxa Kultur** gunean. Denek izan zuten harrera ona jendearen aldetik. Baina topaketaren bat nabarmentzekotan, edizio horretan liburu-dendetarako hitzorduek izan dute harrerarik onena. Egin ziren hiru topaketetan izan zen jendetza, eta agerian geratu zen liburu-
en etxean pentsamendura hurbiltzeak duen xarma.

Datu bitxi bat: Literaktum-en egin zen liburu-zozketan ehundik gora lagunek hartu zuten parte.

2018ko edizioa, beraz, oso edizio ona izan zen.



© Josu de la Calle

Pio Baroja ibilbidea